

PRESENTACIÓN

Dietrich Bonhoeffer (1906-1945) es uno de los grandes testigos cristianos del siglo XX, por su compromiso ético radical y por sus novedosas intuiciones teológicas. Inspiró a Martin Luther King y a teólogos –demasiado ignorados– como Tillich y Robinson. Un profeta para nuestro tiempo.

En su corta e intensa vida, nunca se instaló en certezas. Preguntó, buscó, caminó. Joven teólogo brillante y prometedor, lo arriesgó todo: su prestigio académico, su posición en la Iglesia, su credo religioso, hasta a su dios. Lo perdió todo, hasta quedarse “Ante Dios sin dios”, como Jesús en la cruz, como tantos hombres y mujeres de su tiempo atribulado y del nuestro.

Detenido y encarcelado por la Gestapo a sus 37 años, sus compañeros de prisión, ateos radicalmente comprometidos por la justicia, le abrieron los ojos a la presencia del Misterio divino en el corazón de un mundo que ya no podía seguir creyendo en el dios supremo de lo alto, el dios providente, el dios “tapagujeros”, el dios que explica nuestros enigmas y resuelve nuestros problemas. Y se sintió uno con ellos, abandonado de dios. Y, abandonando a dios, se entregó a Dios, el corazón que late en las alegrías y las penas del mundo sin religión y sin dios. Fue ahorcado en el campo de concentración de Flossenburg el 9 de abril de 1945. “Este es el fin. Para mí, el comienzo de la vida”, fueron sus últimas palabras momentos antes.

Su teología y su espiritualidad se adelantaron al tiempo y no fueron secundadas por las Iglesias y los “grandes” teólogos. Siguen siendo luz para nosotros en una época posteísta y postatea, que necesita y busca un aliento místico transformador.

Su obra fundamental es *Resistencia y sumisión*, recopilación póstuma de buena parte de las cartas que escribió desde su encarcelamiento hasta su ejecución, así como de los poemas y meditaciones teológicas escritas durante ese tiempo, entre abril de 1943 y abril de 1945. Es lo mejor de su biografía y de un pensamiento que no pudo sistematizar. En el retiro de Arantzazu respiraremos el aliento profundo de esos textos.

José Arregi

AURKEZPENA

Dietrich Bonhoeffer (1906-1945) XX. mendeko kristau testigu gorenetakoa dugu, bere konpromiso etiko erradikalarekin eta intuizio teologiko berritzaileekin. Martin Luther King inspiratu zuen, baita Tillich eta Robinson bezalako teologo (ezezagunegiak) ere. Profeta handia bizi ditugun garaietarako.

Bere bizitza labur bezain betean, ez zen inoiz ziurtasunean kokatu. Galdetzaile, bilatzaile, ibiltari izan zen. Distira eta etorkizun oparoko teologo gaztea zela, dena arriskatu zuen: prestigio akademikoa, Elizan zuen posizioa, sinesmen erlijiosoa, jainkoa bera, edo jaun goikoa. Dena galdu zuen, "Jainkoaren aurrean jainkorik gabe" geratzeraino, Jesus gurutzean bezala, bere garaiko eta gure garaiko hainbat gizon eta emakume bezala.

37 urterekin Gestapok atxilotua eta espetxeratua izan zelarik, bere espetxekideek – justiziarekin erabat konprometitutako ateoak– begiak ireki zizkioten Jainko-Misterioaren presentzia garaiko munduan bertan begiesteko, mundu bat zeinak ezin baitzuen jada sinetsi jaun goikoarengan, jaun goiko probidentiarengan, jaun goiko “zulo-estalkiarengan”, gure enigmak azaltzen eta arazoak konpontzen dituen jaun goikoarengan. Eta beraiekin bat sentitu zen, jaun goikoak abandonatua. Eta, jaun goikoa abandonatuz, Jainkoari eman zitzaion, erlijiorik eta jaun goikorik gabeko munduaren poz eta atsekabeetan taupadaka ari den bihotzari. Flossenburgeko kontzentrazio-esparruan urkatu zuten 1945eko apirilaren 9an. "Hau da amaiera. Niretzat, bizitzaren hasiera ", izan ziren bere azken hitzak, une batzuk lehenago.

Haren teologia eta espiritualtasuna bere garaiari aurreratu zitzaizkion, eta Elizek eta teologo "handiek" ez zioten jarraitu. Guretzat argi izaten jarraitzen du, geure garai posteista eta postateo honetan, arnasa mistiko eraldatzailea behar duen eta bilatzen duen garai honetan.

Bere obrarik funtsezkoena *Resistencia y sumisión* dugu, kartzelan sartu zutenetik exekutatu zuten arte idatzi zituen eskutitz askoren bilduma postumoa, baita 1943ko apirila eta 1945eko apirila bitarte horretan idatzitako poema eta meditazio teologikoena ere. Bere biografiaren eta sistematizatu ezinik gelditu zitzaion pentsamenduaren lekukorik onena dugu obra hori. Arantzazuko barnealdian, testu horien arnasa sakona arnastuko dugu

Joxe Arregi